

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 24an hartutako erabakiaren laburpena; bertan onartzen baitira ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko dirulaguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarriak 2024-2025 ikasturtea

BDNS(Identif.): 769222.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/769222>.)

Lehen. Onuradunak

Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira laguntzen hartzaileak, zehazki, Lehen Hezkuntzan irakaskuntza gauzatzen dutenak. Hala, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza emateko erabiliko dute, betiere Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak (Kultura eta Hezkuntza Saila) onartzen badu, ikastetxeek aurkeztzen dituzten eskaerekin eta txostenekin bat etorriz.

Bigarrena. Helburua

Dirulaguntzen deialdi honen xedea hau da: 2024-2025 ikasturtean Vitoria-Gasteizko ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea, Lehen Hezkuntzan matrikulatuta dauden eta ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntza psikopedagogikoa jaso dezaten.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 24an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

170.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiri dagokion testu-zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2024ko irailaren 20ra arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 24an

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA